

[EUS/CAST] Ustezko istilu batzuen ondoko 4 urteko espetxe eskaera

LAHAINE_EH :: 04/01/2022

Gazte baten aurkako lau urteko espetxe zigorra eskaera salatzeke mobilizazioa burutu dute Donostian

200 pertsona inguru bildu dira urtarrilaren 3an, Donostiako Konstituzio plazan hasi eta Alde Zaharreko kaleak zeharkatu dituen mobilizazioan. Parte Zaharra Aske plataformak deituta, 2020ko abenduan, Donostiako Alde Zaharrean errepresioaren aurkako manifestazioan atxilotua izan zen gazteari elkartasuna adierazi eta bere aurka abiarazitako epaiketaren salaketa burutu da mobilizazioan. Izan ere, desorden publikoa eta “atentado a la autoridad” akusazio pean 4 urteko espetxe zigor eskaera egin dute gazte honen aurka.

Mobilizazioa bukatuta auzipetuari erabateko babesa adieraztearekin batera, bere absoluzioa galdegin dute. Era berean, epaiketari aurre egin eta hau gelditzeko era bakarra era antolatu eta bateratuan aritzea dela azaldu dute, hurrengo deialdi eta ekimenetan parte hartzeko deia luzatu dutelarik.

Orain dela bi urtetik datorren egoera

2020ko manifestazioa auzoko gazteek pairatzen zuten bortizkeri polizia, identifikazio eta atxilotura testuinguruaren baitan kokatu beharra dago. Horrela, “Auzoak defendatu errepresiorik ez” lemapean 400 pertsona inguru bildu zituen manifestazioa bukatutakoan Ertzaintzak gazte bat atxilotzen saiatzean istiluak eragin zituen. Istiluak gerta bitartean, hauetatik urrun eta inolako zerikusirik ez zeukan gaztea atxilotu zuten. Plataformaren arabera euskal gazteria beldurtzeko helburu politikoarekin antolatutako muntai polizialaren aurrean gaude.

Parte Zaharra Aske plataformaren arabera 16 dira azken hilabete horietan zehar atxilotuak izan diren gazteak. Horietako batzuk komisaldegian bere burua inkulpatzera behartuak ikusi ziren, beste batzuk oraindik ere epaiketaren zain daudelarik. Orain arte, adingabeko gazte bat izan da epaitegitik igaro den bakarra, komunitaterako zerbitzuak burutuzera kondenatua izan dena.

[Traducción]

Movilización en Donostia ante la petición de 4 años de prisión contra un joven.

Alrededor de 20 personas se movilizaron el 3 de enero en la movilización que partiendo de la plaza de Constitución ha recorrido las calles de la Parte Vieja de Donostia. Llamados por la plataforma Parte Zaharra Aske, además de ofrecer apoyo al joven encausado se denunció el juicio contra el joven, contra el que se ha realizado una petición de 4 años de prisión bajo la acusación de desorden público y atentado a la autoridad.

Una vez terminada la movilización, además de solidarizarse con el encausado, se exigió su absolució. De la misma manera, explicaron que la única forma de hacer frente al juicio es actuar de una forma organizada y unitaria.

A su vez, hicieron un llamamiento para participar en las futuras iniciativas.

Una situación que viene arrastrándose desde hace dos años.

Hay que enmarcar la manifestación del 2020 en el contexto de acoso policial, identificaciones y detenciones que padecían los jóvenes del barrio. Al termino de esta, que reunió a unas 400 personas bajo de la consigna de “defendamos los barrios no a la represión”, la Ertzaintza provocó incidentes al intentar detener a un joven. En el transcurso de los mismos se detuvo al joven que ha sido imputado, el cual no estaba envuelto en los incidentes ni se hallaba en sus cercanías. Según la plataforma nos encontramos ante un montaje policial con el claro objetivo político de aterrorizar a la juventud vasca.

Según la plataforma Parte Zaharra Aske en esos meses de 2020 han sido detenidos 16 jóvenes, de los que algunos han sido obligados a auto-inculparse en comisaria y otros todavía están a la espera de juicio. Hasta el momento, la única persona que ha pasado por el juzgado, menor de edad, ha sido condenada a a trabajos comunitarios.

<https://eh.lahaine.org/eus-cast-ustezko-istilu-batzuen>